
Mozkin asmoagatik ez bada, zein da ba asmoa? Ekintzailtza sozial kooperatibora-ko adierazle sistema baten proposamena

If not for profit for what? Proposal of a system of indicators for cooperative social entrepreneurship

Lan honetan ekintzailtza sozial kooperatiboaren asmo soziala elikatu eta gidatzen lagundu dezakeen adierazle sistema baten proposamena aurkezten da. Batetik, adierazle sistema eta ekintzailtza sozial kooperatiboaren elementuekin analisia burutzen da, hauen motibazio eta indarrei erreparatu nahi baitie, ekintzailtzaren «jokabideen teorian» ikerketa ildoan (behavioral theory) beste aletxo bat jarritz. Proposamen hau bestetik, Ekintzailtza Sozialaren eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) teoriari, eduki eraldatzaile konkrituagoak eranstera dator. Proposamena Koopfabrika deritzon ekonomia sozial eraldatzailea eta ekintzailtza kooperatiboa sustatzeko programaren dinamizazioan diharduen Olatukoop sareko kooperatibetako kideekin elkarlanean burutu da. Ikerketa Ekintza Partehartzaileen ikuspegi metodologikora gerturatu nahian, adierazle sistema hau modu kolektiboan eta balioztatze dinamika ezberdinen bitartez eraiki da. Modu honetara, ESEaren paradigmatari zenbait inplikazio praktikoko eta teoriko egiteko aukera sortu da, ekonomia egiteko bestelako errealitateak egikartzeko.

En este trabajo se presenta la propuesta de un sistema de indicadores que ayuden a alimentar y guiar la voluntad social del emprendimiento social cooperativo. Por un lado, se lleva a cabo un análisis del sistema de indicadores y de los elementos del emprendimiento social cooperativo que pretende atender a las motivaciones y fortalezas de estos, aportando un nuevo grano de arena en la línea de investigación de la «teoría de la conducta» (behavioral theory) del emprendimiento. Esta propuesta, por otra parte, incorpora contenidos transformadores más concretos a la teoría del Emprendimiento Social y la Economía Social Transformadora (EST). La propuesta se ha llevado a cabo en colaboración con los miembros de la red de cooperativas de OlatuKoop, dedicada a la dinamización del programa de promoción de la economía social transformadora y del emprendimiento cooperativo, KoopFabrika. Con el fin de acercarnos al enfoque metodológico de la Investigación Acción Participativa, este sistema de indicadores se ha elaborado de forma colectiva y mediante diferentes dinámicas de valoración. De esta forma, se ha generado la posibilidad de realizar determinadas implicaciones prácticas y teóricas al paradigma de la EST, para ejecutar otras realidades de hacer economía.

This paper proposes a system of indicators that can help guide the social objective of cooperative social enterprises and to make its contribution to its transformative dimension. First, the focus is put on the motivations and forces that could underlie, contributing to the research of the «behavioral theory» in social entrepreneurship. Second, concrete elements of transformation are incorporated into the theory of Social Entrepreneurship and Transformative Social Economy (TSE). The proposal was developed in collaboration with members of the Olatukoop cooperative network involved in the revitalization of the Koopfabrika program, which seeks to promote social economy and cooperative entrepreneurship. In order to bring the study closer to the methodological approach of Participatory Action Research, we collectively built the system of indicators, with proposal and validation dynamics. In this way a series of practical and theoretical implications are created on the paradigm of TSE to execute other realities of making economy.

Mirene Begiristain Zubillaga

*Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)*

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Jon Morandeira Arca

*Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboko Institutua*

Arianne Kareaga Irazabalbeitia

*Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea,
Mondragon Unibertsitatea (MU), Lanki Kooperatibismoaren Institutua*

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Ekintzailtza sozial kooperatiboaren eta adierazle sistemaren ezaugarritze teorikoak
3. Ekintzailtza sozial kooperatiborako adierazle sistema: *Know-How*-a lantzen Gipuzkoako Koopfabrikako kasutik abiatuta
4. Eztabaida eta ondorioak

Erreferentzia bibliografikoak

Hitz gakoak: ekintzailtza soziala, ekonomia sozial eraldatzailea, adierazle sistema.

Palabras clave: emprendimiento social, economía social transformadora, sistema de indicadores.

Keywords: social entrepreneurship, transformative social economy, system of indicators.

JEL sailkapena: J54, L26.

Sarrera data: 2020/03/12

Onartze-data: 2020/07/13

* Egileok eskerrak eman nahi dizkiegu ebaluatzaile anonimoei, haien iruzkinak artikulua bertsioak nabarmen hobetzen lagundu baitute. Eskerrak ere eman nahi dizkizuegu adierazle sistemaren proposamen hau eraikitzen lan egin eta parte hartu duzuen erakunde eta pertsona guztiei, ezagutzaren eraikuntza kolektiboko prozesu honetan elkarrekin aritzeak guri bederen eskaini digun ikasbide eta ahalduzko aukeragatik. Eskerrik asko dano!

1. SARRERA

Jarraian aurkezten den lanean ekintzailtza sozial kooperatiboaren asmo soziala gidatzen lagun dezakeen adierazle sistema baten proposamena egiten da. Adierazle sistema bera ekintzailtza sozial kooperatiboa ulertzeko eta praktikatzeko modu ba-

tetik eraikia izan da, beraz, ekintzaitza sozial kooperatiboaren dimentsio soziala elikatu eta gidatzeaz gain bere horretan oinarri ere bada. Oinarri eta ipar izateko tresna izan daiteke proposatzen den adierazle sistema.

Ikerketa galderari dagokionez, erdigunean jarri den ekintzaitza sozial kooperatiboaren adierazle sistemarekin zuzen lotzen da: Ekintzaitza sozial kooperatiboek zein elementu izan behar dituzte ekonomia sozial eraldatzailearen baitan? Zeintzuk lirakeke orduan mota honetako ekintzaitzak martxan jartzeko pizgarri suertatzen diren motibazio iturriak? Aurkezturiko proposamenaren helburu nagusia, beraz, ekintzaitza mota horien protagonisten artean aurki genitzakeen motibazioen eta helduleku teorikoen karakterizazioa burutzeko lehen hurbilketa bat egitea da.

Proposaturiko adierazle sistemak, modu honetan, motibazio horiek identifikatu, helburuen arabera antolatu, eta horiek neurgarri egiteko irizpide eta adierazle sorta bat eskaintzea du xede. Era berean, adierazle sistema honek bere aplikagarritasun praktikoaz harago, maila teorikoan ekonomia sozialaren eta ekintzaitza sozialaren ingurumarian agertzen diren eztabaida teorikoetan ere ekarpena egitea bilatzen du. Zentzu horretan eta artikulu honetako laugarren puntuan jasotzen da eztabaida horretan adierazle sistemak egiten duen ekarpen teorikoa, Ekonomia Sozial Eraldatzailea ulertzeko eta praktikatu ahal izateko oinarriak eta aldi berean iparra zehaztuz.

Hurbilketa teorikoari dagokionez, helburu horiek erdietsi nahian, adierazle sistemaren hurbilketa teorikoa hiru erpinetatik bideratu nahi izan da: ekintzaitza sozialaren «jokabideen teoria» ildoan sakondu da lehenik Youngen ekarpenetan sakonduz (Young, 1983 eta 2013); ekonomia soziala, ekonomia solidarioa eta ekonomia sozial eraldatzailea proposamenek mahai gaineraturiko eztabaida teorikoen testuinguruan kokatu da, paradigma horien bilakaera xehetuz; eta azkenik, tresna honen ekarpen metodologikoaren inguruan ere zenbait zehaztapen egin nahi izan dira, proposaturiko tresna ekintzaitzen emaitza sozialaren ebaluazioa egiteko baina, erakundeetan barne eraldaketa prozesuak sustatzeko helduleku gisa sortua izan baita.

Laburbilduz, gizarte ekintzaileentzat ekonomia sozial eraldatzailearen paradigmatik finkatzen dituen helburuetara hurreratzeko iparrorratz bat eskaintzeko helburuz proposatzen da jarraian aurkeztzen den adierazle sistema. Bere aplikagarritasun praktikoari begira, ekintzaitza horien barne prozesu eraldatzaileak zein gizartearekiko eta inguruarekiko elkarlanean dimentsio eraldatzailearen prozesuak dinamizatzeko baliabide gisa pentsatua izan da.

Proposamena eraikitzeke metodologia, Koopfabrika ekintzaitza sozial kooperatiboak sustatzeko programaren dinamizazioan diharduen Olatukoop sareko kooperatibetako kideekin elkarlanean burutu da. Horretarako, Ikerketa Ekintza Partehartzaile ikuspegi metodologikora gerturatu gara, adierazle sistema hau kooperatibistekin modu kolektiboan eraiki da, proposamen eta balioztatze dinamika ezberdinen bitartez.

Erreferentzia metodologikotzat izan da Jara (2012). Izan ere, autore honek ebaluazioa ez du emaitzen neurketa huts moduan soilik ulertzen. Ebaluazioaren proze-

suak berak beste prozesu batzuk aktibatu eta barnebiltzen ditu: Ekintza hezitzaile bat da ebaluazioan parte hartzaileentzat eta era berean, hobetzeko lerro proposamenak eginez amaitzen da praktika konkretuak zehaztuz hobetu ahal izateko.

Beraz, ekarpen honekin, maila praktikoan, ekintzailletza sozialen barne eraldaketa prozesuak gidatzeko tresna bat eskaintzen da; maila teorikoan, ekonomia sozial eraldatzailea zehatzago definitzen laguntzen duten helburu eta irizpideen proposamen xehatuago burutzen.

2. EKINTZAILLETZA SOZIAL KOOPERATIBOAREN ETA ADIERAZLE SISTEMAREN EZAUGARRITZE TEORIKOAK

2.1. Ekintzailletza sozialaren «jokabide teoriarik» ba al da ekintzailletza sozial kooperatiboarentzako?

2013. urtean EMES Network erakundeak, enpresa sozialen azterketan espezializaturiko nazioarteko ikerketa sareak, Liejan antolaturiko 4. Nazioarteko Konferentziak esaera hauxe hartu zuen goiburutzat: *If not for profit, for what? And how?* (Mozkin asmoagatik ez bada, zertarako? Eta nola?). Modu honetan, 30 urte lehenago Dennis Young (1983) ikerlariak argitaraturiko obra seminalaren berreskuratze deliberatuaren bitartez, abiapuntu hartako galderaren egokitasuna berrestez gain, bigarren galdera batekin osatu zen lehen: eta nola?

Dennis Youngen (1983) lehen ekarpen hark, mozkin asmorik gabeko erakundeen teorizazio ekonomikoaren esparruan bide berri bat zabaltzen, eskaintzaren ikuspegia jorratu zuen lehen ekarpena izan baitzen. Ordura arteko lehen saio teorikoek, mozkin asmorik gabeko erakundeen aldeko hautua egiten zuten kontsumitzaileen arrazoibideetan arakatu zuten, halako moduz ze ikerketa galdera nagusiak formulazio honetan hartzen baitzuten oinarri: kontsumitzaileek zergatik jotzen dute mozkin asmorik gabeko erakundeetara beren beharrianak modu arrazionalan asetzeko? (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018). Galdera horri erantzuten saiatu ziren hirugarren sektoreari buruzko teoria neoklasikoaren lehen ekarpenak, Weisbord-en (1975) estatuko akatsen teoria, Hansman-en (1980) kontratu akatsen teoria, Salamon-en (1987) boluntario akatsen teoria, etab.

Young-en (1983) ekarpenak bide berri bat ireki zuen, bestelako begiratura proposatzen baitzuen: ekintzaile batek hirugarren sektoreko erakunde bat abian jartzeko zein indar eta motibazio izan ote zitzakeen galdetuz heldu zion gaiari, lehen aldiz, «eskaintzaren ikuspegiko» (*supply side*) ikerlerroa zabaltuz. *If not for profit for what?* galdera itxuraz tolesgabe xamarra formulatuz, mozkin asmorik gabeko erakundeen «Jokabide Teoria» (*Behavioral Theory*) bat osatzeko oinarri batzuk finkatu zituen lehen aldiz.

Gaurtik begiratura, lan horri «ekintzailletza sozialaren» aurkikuntza egin izana aitortzen zaio aditu ezberdinen aldetik (Bacq eta Janssen, 2011; Dees eta Anderson, 2006; Spear, 2006). Formulaturiko galderak eta emaniko lehen erantzun saioek, be-

raz, egun ekintzailtza sozialaren korpus teorikoaren abiapuntua okupatzen dute oraindik orain (Dees, 2013; Defourny eta Nyssens, 2010).

Young-en hastapeneko galderak ez du gaurkotasan izpirik galdu. Galderari, ordea, ez zaio eredu ekonomiko bakar batekin erantzuten, Young-ek ordurako aurreratzen zuen gisan (2013:XIII): «*we may never have a simple economic model of a non-profit organization*»¹. Lehen lan hartan aurreratu zuen erantzuna, mozkin asmorik gabeko erakundeen artean beha zitekeen aniztasun handiaz jabeturik, ekintzailtza mota ezberdinen kategorizazio saio bat egiten saiatu baitzen, estilo eta estereotipo ezberdinak zenbait aldagai azaltzailerekin gurutzatuz (emandako zerbitzuaren izaera, profesionalizazio maila, industria kontzentrazio maila, lehenitasun sozialen izaera) (Frumkin, 2013). Estilo estereotipikoak faktore baldintzatzaileekin gurutzatuz teoria bateratu eta oro azaltzaile (*comprehensive*) bat eraiki asmo izan zuen, nahiz eta ekintzailtza bakoitzak bere preferentziekin egokien doitzen den «antolakuntza gida» (*organizational vehicles*) hartzen zuela ondorioztatu zuen (Young, 2013).

Aniztasunaren aitortza horrek, aldiz, bete betean talka egiten du teoria mikroekonomiko klasiko osoaren premisa fundazionalarekin: mozkin asmodun erakundeen helburu nagusia (bakarra ez denean) mozkinen maximizazioa bada, aldagai horrek azaldu behar luke beste ezerk baino zehatzago bere jokabidearen nolakoa. Eskola neoklasikoaren arrakastaren (eta gaitasun azaltzaile apalaren) azalpenetako bat etor liteke bere sinplifikatze gaitasunetik. Jokabide teoria horrek, ordea, ezin azal dezake mozkin asmodun enpresa guztien helburu eta jokabidea. Begiratu mugatu horren ertzetan geratuko dira, ziur aski, egungo kapital enpresa txiki eta ertain gehien gehienak, eta baita, nola ez, bestelako asmoekin sorturiko enpresak ere.

Young-ek bere liburu seminalaren 2013ko berrargitalpenean (Young, 2013) aitortzen du, berak hasieran formulaturiko zenbait hipotesik sakoneko berrikusketa eskatzen dutela egun. Horien artean hiru azpimarratuko genituzke, lan honen bitartez aurkeztzen den proposamenaren muinean aurkitzen baitira hiruok: bata, ekintzailtza soziala fenomeno indibidual gisa ulertzea okerrekoa dela dio, lidergo sendoko ekintzaile «heroikoa»ren mitotik oso urrun aurkitzen direla ekintzailtza sozial gehienak. Hain zuzen ere, talde lanean edo zentzu kolektiboan aurkitzen baitute motibazio iturri nagusienetako bat (de Bruin *et al.*, 2015). Bi, ekintzailtza sozialak hirugarren sektoreari loturiko logika hertsian kokatzeak, enpresa publiko eta pribatuen logiketarik kanpo, gaur egun zentzu handirik ez duela dio, geroz eta hibridazio maila handiagoak sumatzen baitira erakunde berrien artean, logika publiko, sozial eta enpresarialak bat egiten dutelarik horien jardute moduetan. Eta, hiru, ekintzailtza sozialen hazkunde estrategiek federazioaren, elkarlanaren, saretzaren logikei eusten dietela gehituko du azkenik, lehiari oinarrituriko strategiari bainoago.

¹ Ez dugu inoiz mozkin asmorik gabeko eredu ekonomiko sinplerik izango (egileen itzulpena).

Hiru elementu giltzarri horiek agertuko dira aurrerago aurkeztuko den emaitzan, baina ez dezagun pausu hori aurreratu, aurreragokoak diren zenbait galderari heldu baino lehen: mozkin asmoagatik ez bada, zertarako sortzen dira ba ekintzailatza sozialak? Zein dute ba beren asmo nagusia? Mozkin asmoari kontrajartzen zaion adiera nagusia da helburu sozialaren lehentasunarena, baina helburu sozialarekin zer ulertzen da? Denok ulertzen al dugu gauza bera?

2.2. **Ekonomia sozialaren paradigmatik Ekonomia Sozial eraldatzailearen paradigmara**

Mozkin asmoagatik ez bada helburu sozial batengatik izan bedi, beraz. Baina zein helburu sozial? Ba al da besteen gaintetik gailentzen den helburu sozialik? Eta zein gizarte ereduren eskizian finkatzen da lehentasuneko helburu sozial hori? Galderak formulatze hutsak agerian uzten du lehen unetik afera hau ebatzita egotetik zein urrun dagoen. Helburu sozialak gizarte eraldaketa proiektu zabalagoei loturik baitoaz, eta horiek modu herabe edo ausartagoan proposatu baititzakete egungo sistemaren alternatibak: sistemak baztertzen dituen pertsona eta kolektiboak birgizarteratzen dituen sistema poskapitalista baterako oinarriak jartzera, gradazio maila oso ezberdinetako alternatibak eta helburu sozialak egon badirela ezin bistatik galdu, beraz.

Helburu sozial horiek finkatze aldera, ekintzailatza sozialen izaera eta elementu bereizgarriak buruz teorizatu izan duten kontzeptu ugari agertu dira literatura akademikoan azken hamarkadatan: mozkin asmorik gabeko erakundeak, hirugarren sektorea, sektore boluntarioa, ekonomia soziala, enpresa soziala, ekonomia solidarioa, eta ekonomia sozial eraldatzailea (ESE aurrerantzean), zerranda honetan berriena. Lehenago aurkeztu izan dira kontzeptu horiek argitzen saiatuz zenbait lan (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009; Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015; Etxezarreta, Perez de Mendiguren eta Morandeira, 2014; Etxezarreta eta Perez de Mendiguren, 2018;) eta kasu honetan ESE deitzen den proposamenaren kokapen teorikoa ematera baina ez da mugatuko lan hau.

Ekonomia soziala, kontzeptu juridiko gisa, helburu soziala lehenesten duten enpresa mota ezberdinen multzo bat da. Honi loturiko figura juridikoek (kooperatibak, lan elkarteak, laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak, fundazioak, elkarteak, mutualitateak) beren logika propioak izateaz gain, denen artean partekaturiko ezaugarri batzuk izan badituztela defendatzen da ekonomia sozialaren proposamenarekin.

Ugariak izan dira azken urteetan ekonomia soziala zedarrizteko helburuz gaturiko deklarazio instituzional, lege garapen eta ikerketa akademikoak (Chaves eta Monzón, 2018; Monzón, 2016). Erakunde horiek guztiek partekatzen dituzten ezaugarriak fintze aldera erreferentziazkoa izan liteke 2002an *Social Economy Europe* (Europako Ekonomia Soziala) Europar Batasunean kooperati-

bek, mutualitateek, fundazioek eta elkarteek duten ordezkartza organo gorenak zerrendaturiko printzipio multzoa². Horien artean lehenak bete betean heltzen dio gure eztabaidagaiari: pertsona eta helburu sozialen lehentasuna kapitalaren aurretik. Helburu sozial hori zertan egikaritzen den jarraian zehazturiko printzipio zerrendak itxuratzen du: borondatezko atxikipen librea, bazkideen kontrol demokratikoa, bazkide erabiltzaileen interesen eta interes orokorraren bateratzea, erantzukizun eta elkartasun printzipioen defentsa eta ezarpena, autonomia kudeaketan eta botere publikoekiko independentzia, eta mozkinen gehiengoa garapen iraunkorra, bazkideen zerbitzuen interesa eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea³.

Ekonomia sozialaren proposamenak, beraz, helburu sozialaren hurbilketa propioa egiten du, nagusiki (ez soilik) erakundeen barne egituraketari loturiko funtzionamendu moldeei erreferentzia eginez (demokrazia, elkartasuna, autonomia,...) eta helburu sozial horien derrigorrezkotasun izaera azpimarratuz, enpresa horien gizarte helburuaren (*objeto social*) eginbeharretan txertaturik baitaude helburuok⁴.

Baina Ekonomia sozialeko helburuen izaera dinamikoari jarraituz, eta helburu sozial horiei sakoneko berrikusketa bat eginez, azken bi hamarkadetan paradigmaren bilakaeran bi proposamen agertu dira: ekonomia solidarioarena lehenik, eta ekonomia sozial eraldatzailearena, ondoren.

2.2.1. *Ekonomia Solidarioaren bitartez Ekonomia Soziala berrikusten*

Ekonomia solidarioak ekonomia sozialaren proposamenarekin dituen lotura, bat etortze, haustura eta eztabaidez literatura zabala dago (Laville, 2015; Coraggio, 2016; Drapery, 2013; Levesque, 2003; Monzón eta Chávez, 2016; Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015). Laburbilduz, ekonomia solidarioak hiru dimentsio erantsiko dizkio ekonomia sozialaren proposamenari: lehenik, antolakuntza-ereduari dagokionez, ekonomia solidarioak irizpide juridikoa gainditzen duen prisma hobetsiko du, erakundeon izaera «hibridoan» jarritz arreta nagusia; bigarrenik, dimentsio politikoari loturik, ekonomia sozialaren funtzio politikoaren inguruko optika zabalduko du, gizarte-mailako eraldaketa prozesu zabalagoen baita kokatuz; azkenik, dimentsio teorikoari lotuta, ekonomia solidarioak praktika berri horiek ekonomia sustantibo eta pluralaren interpretazio markoaren pean teorizatuko ditu (Wanderley *et al.*, 2016; Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018).

² <http://www.socialeconomy.eu.org/>

³ http://www.socioeco.org/bdf_organisme-478_en.html

⁴ Elementu honek bereizten du, ekonomia sozialaren proposamena Enpresaren Gizarte Erantzukizuna edo Enpresa Soziala bezalako adieretatik, lehenak helburu sozialen derrigorrezkotasuna ezartzen baitu barne estatutuen bitartez, bestek borondatezko helburu desiragarri gisa planteatzen dituzten bitartean.

Proposamen berri honen bitartez, ekonomia sozialaren helburu sozialean behar besteko arreta eskaini ez zaien bi aspektu nabarmentzen dira (Laville, 2015; Wanderley *et al.*, 2016): alde batetik erretorika eta praktika errealearen arteko amildegieroz eta handiagoa, ekonomia sozialeko erakundeen praktika errealak, mota ezberdineko isomorfismo prozesuen bitartez, beren ingurunean hegemonikoak diren erakundeen jardute logiketara (publiko zein pribatu) hurbildu baititu, kasik azken horietaz ezin bereiztera eramanez; eta, bestalde, ekonomia sozialaren dimentsio politikoa albo batera utzia izan dela aipatzen da, bai erakundeen barne-mailan, bai eta ingurunearekiko konpromiso-mailan ere. Barne-mailan, demokrazia eta berdintasuna maila formal batean ziurtatuta izan arren, praktika errealean egikaritzeko mekanismoen eta kontrol neurrien gabezia edo indargabetzea azpimarratzen da. Kanpora begira, ekonomia sozialaren funtzio eraldatzailearen inguruko ikuspegi estratergiako propioaren gabezia da nabarmentzen dena.

Laburbilduz, hortaz, bi ideia gailentzen dira ekonomia solidarioak eginiko berrikusketan: helburu soziala betetzeko, ekonomia sozialeko erakundeek berezkoak zaizkien printzipioak operatibizatzeke borondate, estrategia eta tresna konkretuen gabezia sumatzen da, alde batetik; eta bestalde, gizarteari begira erakundeok planteatzen duten gizarte eraldaketa eredu argi baten gabezia ageri da, bestelako enpresa eredu ez kapitalistak sustatzeaz harago. Bi elementu horiek justifikatzen dute, hein handi batean, lan honetan aurkezten den adierazle sistema propio baten eraikuntzaren zergatia.

2.2.2. *Ekonomia Sozial Eraldatzailearen bitartez proposamen sozial eta solidarioak irauli*

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) proposamena, denboran berriagoa dena, ekonomia solidarioaren koordinada ideologiko gertukoetan kokatzen da, nahiz eta ñabardura batzuk antzematen diren praktika konkretu batzuen interpretazio politikoan eta baita sare horietako bakoitzak lehenetsitako ekintza lerroetan ere.

Nekez aurki liteke, gaur gaurkoz, ESEren inguruko teorizazio lanik (Villalba, Egia eta Perez de Mendiguren, 2019), alde batetik proposamena oso berria delako denboran, eta bestetik, gorpuzten eta forma propioa hartzen ari den praktika baten gainean eraikitzen ari delako. Nazioarte mailan gaur gaurkoz ekonomia sozial eta solidarioa (edo ekonomia sozial solidarioa) deiturarekin izendatzen dira erakundeen federazio, instituzio eta nazioarteko programa gehienak (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015). Hala ere, «eraldatzaile» terminoa geroz eta onarpen zabalagoa lortzen ari dela dirudi, bai Espainiar estatu mailan (Andaluzian⁵, Euskal Herrian⁶

⁵ <http://autonomiasur.org/wp/>

⁶ Terminologiari dagokionez, hainbat eragileen terminologi propioa izateaz gain, 2016an Bilbon REASEk antolatuturiko kongresuaren azken adierazpenean ere jasoa geratu zen berau <https://www.economiasolidaria.org/noticias/declaracion-de-bilbao-por-una-economia-social-y-solidaria-transformadora>.

zein Katalunian⁷ nagusiki) sortzen ari diren sare eta proposamen berriei kasu eginez gero, eta baita nazioarteko mailan agertzen ari diren beste ekimen batzuegatik ere⁸.

Paolillok argitzen duenez (2018), ESEren proposamena ekonomia sozial eta solidarioaren esparru zabalean kokatzen da, baina eraldaketa proposamenaren planteamendu zehatzago batekin. Honela, autore honek berak ezaugarri hauexek ezartzen ditu ESEren proposamenaren oinarrian: praktiketatik abiatutako proposamen teorikoak dira, sistema kapitalista gainditu eta ordezkatzeko helburu argia dutenak, burujabetza ekonomikodun alternatiba komunitarioak eraikiz, lurralde mailako bestelako eragile ekonomiko eta sozialekin saretuz eta bestelako korrante kritiko eta eraldatzaileekin elkarrizketa eta lankidetzara emankorra izanez.

Posizio hartze politiko propio honetan, ESE proposamenak eragin nahi luke bere irudiko eraldatzaileak ez diren ekonomia solidarioko zenbait praktiketan (hirugarren sektoreko logika asistentzialistak gainditu eta ahalduzko prozesuak sortuz), baina baita kooperatibismo tradizionalan ageri diren praktika ez eraldatzaileetan ere, nagusiki merkatu eskakizunei men eginez izpiritu kooperatiboa galdu duten esperientziak interpelatuz (Autonomia Sur, 2017).

Beste ezberdintasun bat suma liteke praktikan sare bakoitzaren agenda propioan ere, ESEren proposamenak ezarritako lehentasuneko ildo nagusiak hauexek baitira: ekintzaile kooperatiboaren sustapena, memoria kooperatibo alternatiboa indartuko duen errelatoaren eraikuntza eta sarearen baitako erakundeen arteko kooperazioan sakontzeko egitura mutualisten sorrera (Fernandez, 2019)⁹. Lehen lerro horri loturik agertzen da –behin bilakaera paradigmatikoa mahai gaineratuta– jarraian aurkezten den adierazle sistemaren planteamendua ere.


Atal honetan jorratutako hariari amaiera emateko hurrengo irudiaren bitartez Ekonomia Sozialetik ESEra eginiko mataza kontzeptuala jasotzen da:

⁷ <https://bcn.coop/aprenem/>; <http://xes.cat/>; <https://ajuntament.barcelona.cat/economia-social-solidaria/ca/el-comissionat>

⁸ Azken bateratze prozesu bat ere antzematen ari da azkenaldion ekonomia solidarioa eta ekonomia eraldatzaile terminoen artean, bigarren honen indar hartze baten isla dena. Horren adierazle argia da 2020 urtean Bartzelonan antolatutako Munduko Foro Soziala, zeinak Ekonomia Eraldatzaileak baitarama goiburua: bertan bat egiten dutelarik ekonomia solidarioko nazioarteko eragileek, ekonomia feministaren, mugimendu agroekologikoaren eta ondasun komun natural, hiritar eta digitalen mugimenduarekin <https://transformadora.org/es/2020>

⁹ Lehentasuneko lan lerro horiek bat egiten dute zenbait kasutan hainbat erakunde lan ildo nagusiekin, besteak beste, REAS Euskadi eta REAS Navarrakin adibidez (ikus: <https://www.economiasolidaria.org/reas-euskadi> eta <https://www.economiasolidaria.org/reas-navarra>). Dena den, REAS-en baitan azken urteetan jorratu diren lan lerro nagusietako batzuk, merkatu sozialaren eraikuntzan, tokiko politika publikoaren lanketan, erakunde kudeaketan ikuspegi feminista txertatzean edo lan honen zerkusi zuzena duen auditoria sozialaren egitasmoan oinarritu izan dira. Olatukoopen lerro estrategikoez nolabait osatu ditzakete REAS-en agendako zenbait hutsune: mutualizazioarako egituren lanketaren bidez edo ekintzaile kooperatiboaren programa egonkorra eskainiz, Kooperatiboko kasu (www.koopfabrika.eus).

1. Irudia. EKONOMIA SOZIALEKO PARADIGMATIK ESE PARADIGMARA



Iturria: Egileek egina.

2.3. Ekintzailatza sozial kooperatiborako adierazle sistemaren proposamen metodologikoa

Iruten ari garen hari diskurtsiboaren azken matazari helduz, zera litzateke orain askatu beharreko korapiloa: mozkin asmoa ez bada ekintzailatza sozial kooperatiboak bultzatzen dituen indar nagusia, eta ontzat harturik ESEren paradigmak eskaintzen duela ekintzailatza horien erreferentzia teoriko eta politikoa, nola gerturatu orduan helburu horietara? (*and how?*- eta nola?). Nola ezaugarritu eta xehatu ESEren paradigmatic eratoritzen diren helburu eta praktika konkrituak? Eta zein bitarteko jarri helburu horien operatibiziorako? Galdera horiei erantzun asmoz abiatzen da adierazle sistema propio bat modu kolektiboan eraikitzeke egitasmoa. Zentzu horretan, beharrezkoa egiten da adierazle sistemaren ekarpenaren zorrotasun metodologikoa eraikitzeke, bere esanahia eta baliagarritasuna zehaztea, eta, horretarako, beste proposamen batzuekin –zehazki auditorietza soziala edota Ikerketa-ekintza-partehartzailen ikuspegiarekin– partekatzen dituenak eta ez dituenak azaltzea.

Erantzun batzuk josten hasteko: ESEk ekintzailatza sozial kooperatibo berrien paradigma osatu nahi badu, adierazle sistemaren tresnak iparrorratz funtzioa bete nahi luke, ekintzailatza horiei zerumuga ikusgarri bat jarri eta haranzko ibilbidea errazteke seinale eta xendak proposatzeko. Hortaz, *and how?* (eta nola?) galderari eman dakioken erantzun posibleetako bat da, adierazle sistemaren tresna: ekintzailatza sozial kooperatiboak ESEren paradigmara hurreratzen joaten laguntzeko iparrorratza.

Definizio zehatzagoa eskaintze aldera, adierazle sistema bat garai tarte jakin batean biltzen diren datu edo datu multzoak dira, zeintzuk erakunde batek edo era-

kunde bateko talde batek aurrez finkatutako helburu batzuen lorpen edo joera maila neurtzen duten (Begiristain, 2016). Adierazle sistemak, beraz, erakundeen praktika errealetatik horiek ezarritako helburu sozialetara gerturatzeko trantsiziorako tresna bat eskaintzen du, ibilbide orri bat, nahi bada.

Helburuen lorpen edo joera mailak neurtzeaz ari garelarik, ekonomia sozial eta solidarioan aurkitzen den eztabaidagai konkretu batekin topo egiten da: erakunde horien «balio soziala» edo «efikazia soziala» neurtu eta jakinarazi beharraren afe-rarekin, hain zuzen ere. Adierazle sistemaren funtzioa ezartzerakoan ez gara juxtuki ebaluazioaren gaiaz mintzatzen ari, baina bai neurri batean ebaluazioaren inguruan sorturiko eztabaidaren marko teorikoaz. Eta honi loturik agertzen dira ekonomia sozialean planteatu diren tresna eta adiera ezberdin andana: ziurtagiri sozialak, zigiluak, auditoria edo balantze sozialak, kontabilitate soziala, inbertsioen itzulkin soziala (*social return*), iraunkortasun txostenak, GRI txostenak (*Global Reporting Initiative*), ISOak eta abar.

Gaia bere inguruabar partikularrean kokatze aldera: ekonomia sozialaren buel-tako eragile guzti guztiek barneratua dute, nor bere erara, praktika errealean neur-keta eta kontu ematearen gaia (Díaz *et al.*, 2012; Stievenart eta Pache, 2014; Mar-cuello, 2015; Retolaza *et al.*, 2016; Bassi eta Vincenti, 2015).

Adierazle sistema baten funtzionalitatea, helburu sozial gisa jarritako ezaugarri-ak erdiesteko tresna izatea da, horietara heltzeko trantsizio bide edo prozesu bokazio izatearena, hain zuzen ere. Ebaluazioaren gaineko ikuspegi ezberdinen arteko ezta-baida, funtsean, Jarak (2012) ezartzen duen oinarritzko galderatik erator liteke: eba-luazio ariketa batek zer neurtzen ditu, prozesuak ala emaitzak?

Jarak (2012) argiro ezartzen du metodologia bakoitzaren funtzioa: ebaluazio-aren egitekoa ez da prozesuak interpretatzea, lorturiko emaitzen lorpen maila ba-loratzea baizik, hastapenetan eginiko diagnostikotik eratorritako helburuak lor-turiko emaitzekin zein punturaino bat datozen baloratzea, preseski. Autore honentzat, ordea, ebaluazio ez da emaitzen neurketa hutsa, eta era berean, beste prozesu batzuk aktibatzen ditu: ekintza hezitzaile bat da ebaluazioan parte hartzen duten parte hartzaile guztien ikasbide dena, eta era berean, ekintza lerro batzuen proposamenean amaitzen da, praktika konkretuak hobetze aldera.

Adierazle sistemaren tresnak ere ez du prozesurik interpretatzen (esperien-tzien sistematizazioak egiten duen legez) nahiz eta prozesu ezberdinak aktibatzeko lagungarri den. Ez du, orobat, emaitzen neurketa egitea bilatzen nagusiki. Bere xede nagusia ez baita inolaz ere ziurtagiri sozialen logikan jardutea, ez eta kanpo erakunde batek aitorturiko zigilu bat lortzera begira jardutea ere. Tresna honen helburua erakundeen baitan eraldaketa prozesuak xaxatzea da, prozesuak dinami-zatzearen ideia gailentzen da emaitzen lorpenaren gaintik. Prozesu horien bitar-tez maila ezberdinetako helburuak lor litezke: hausnarketa kolektiborako esparru-ak sortzea, iparrorratz funtzioa betetzen du lortu asmo diren helburuetarantz

igarotzen laguntzeko, auto-ebaluaziorako tresna interesgarria izan daiteke baina baita prozesuen sistematizaziorako, proiektuen exekuzioa hobetzeko, ezagutza berriak sortzeko, lan taldean garatu eta lan taldearen gaitasunetan sakontzeko, identitate partekatua sendotzeko, jasotzen joaten diren datuekin borrokak legitimatzeko, etab. (Begiristain, 2016).

Hortaz, hori guztia aintzat hartuta, adierazle sistema bat ezartzea ez da ebaluazio ariketa soil bat proposatzea. Zentzu horretan ekonomia solidarioko erakundeek eginiko auditoretza sozialeko dinamika eta logiketarik edaten badu ere, beste bide batzuk eskaintzen ditu.

Bestalde, adierazle sistema baten eraikuntza teorikoa eta aplikazio praktikoa egin liteke ikerketa-ekintza-partea hartzaile metodoen (Fals-Borda eta Rahman, 1991) bitartez ala ez, nahiz eta lehenaren filosofiak gertutasun handia duen bigarrenaren ikerketa ikuspegiarekin. Izan ere adierazle eraikuntza eta praktika prozesua erreflexiboa, sistematikoa eta kontrolatua izan daiteke, eta ekintza ere ezagutza iturri izan daiteke non komunitateko kideek subjektu gisa parte hartuz garatu daiteke (Fals-Borda eta Rodríguez-Brandao, 1987; Jara, 2012 eta 2018; Streck eta Jara, 2015). Dena den, prozesu hauek eskatzen duten lanketa sakona onartu behar da, eta horrek adierazle sistema ariketa tresna soil bat izatetik harago ulertzea eskatzen du.

Jarraian zehaztuko den adierazle sistemaren eraikuntza prozesuak ikerketa-ekintza-partea hartzaileko prozesu bat jarraitu du teoriko mailan. Bere osotasunean garatze-ko maila praktikoa balioztatu eta horrek komunitatearen parte hartzearekin sortu ahal dituen eraldaketak identifikatu eta lantzea eskatuko luke. Beraz, lehen hurbilpen bat gauzatu dela esan daiteke, ikerketa eginez, ekintzak gauzatuz eta modu parte hartzailean jorratuz, horrelako prozesu batek eskatzen dituen irizpideak zainduz. Etorkezinean, adierazle sistemaren neurketa ezberdinak egingo dira balioztatzea egiteko.

3. EKINTZAILITZA SOZIAL KOOPERATIBORAKO ADIERAZLE SISTEMA: KNOW-HOW-A LANTZEN GIPUZKOAKO KOOPFABRIKAKO KASUTIK ABIATUTA

3.1. Ekonomia Sozial eraldatzailearen eta ekintzailitza sozial kooperatiboaren testuingurua Gipuzkoan

Ekonomia sozial eraldatzailearen paradigmarantz hurbiltzeko ekintzailitza sozial kooperatiboentzako baliagarria izan nahi lukeen adierazle sistema da jarraian aurkezten dena. Adierazle sistema honen eraikuntza Olatukoop¹⁰ sarean biltzen diren kooperatiba ezberdinetako kideekin modu parte hartzailean joratu da, horiek baitira beraien praktiken gainean gorpuztu eta gizarteratu dutenak Euskal Herrian ESEren proposamena. 6 urte bete berri dituen sare hau, lau printzipio irekieren

¹⁰ Olatukoop zer den aurkezten duen bideoa: <https://olatukoop.eus/aurkezpena/>

gainean oinarritzen da¹¹, eta sare honetan biltzen diren erakundeek beren burua ekonomia sozialean kokatzeaz harago, horien izaera eraldatzailean jarri nahi dute indargunea. Halako moduz ze gizarte eraldaketa bati begira lanean diharduten enpresa komunitario gisa definitzen baitute beren burua. Olatukoop-en lan lerro nagusietako bat ekintzailtza kooperatiboan sustapenean oinarritzen da, eta Koopfabrikan gorpuzten da nagusiki lan lerro hau.

Koopfabrika¹² Gipuzkoako lurraldean ekonomia sozial berria eta ekintzailtza soziala sustatzeko eskaintzen den programa bat da, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikerketa Institutua¹³, Olatukoop sarea eta UPV/EHUko Gezki ikerketa institutuaren¹⁴ artean antolatua, Beterri-Buruntzako Garapen Agentziarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Erakunde publiko, unibertsitario eta kooperatiboan arteko lankidetzak egitasmo honen bidez ekintzailtza kooperatiboak modu kolektibo eta lurralderatuan eraikitzea da egitasmoaren xede nagusia.

Koopfabrikaren programaren baitan ekintzaile zein bidelagunentzako preskakuntza teoriko zein praktikoa eskaintzen da, ekintzailtza egitasmoen akonpainamendu individualizatua eskaintzen da bidelagun sare baten bitartez, eta esperientzia berri horiek lurraldean txertatu eta horien artean saretzen laguntzeko dinamikak ere bultzatzen dira.

Programa osatuz, sorturiko esperientzia eta tresnen hobekuntzarako sistemati-zazio eta ikerketa dinamikak bideratzen dira, adierazle sistema tresna honen proposamena izanik lan lerro horretako emaitzetako bat.

Adierazle sistemaren eraikuntza prozesua Koopfabrikan diharduten unibertsitateko ikertzaileen eta Olatukoopeko kooperatibisten artean garatu da modu kolektiboan, KoopFabrika programaren ekosistemaren baitan unibertsitateetik planteaturiko ikerketa egitasmo gidatu batetik abiatuz, eta Olatukoopeko kideen balioztatze dinamika eta horien itzultze dokumentu ezberdinen lanketa bidez.

Egitasmoak ikerketa kualitatiboko teknika ezberdinak baliatuz, ezagutzaren sorkuntza partekatu eta kolektiboa ahalbidetzea izan du xede, unibertsitateko ikerketa ezagutzak kooperatibisten ezagutza praktikoeekin uztartuz.

¹¹ Komunitatea osatzen duten kideek, autoeraketa posible egiten duten erakundearen jabetza eta erabakitzeko ahalmen osoa dute, demokrazia ekonomikoaren eta pertsona bat bozka bat irizpideei jarraituz. Komunitatea osatzen duten kideek, autokudeaketarako beharrezko informazioa, ezagutzara, kudeaketa datuetara, baliabideetara eta horien erabilerara atzipen osoa eta zuzena izango dute, gardentasun irizpideekin bat eginez. Komunitateak, beharrezko baliabide guztiekin, elkartasun pertsonala zein komunitarioa sustatuko ditu, aberastasun banaketa orekatua eta autonomia irizpideei jarraikiz. Komunitateak, ondare komuna eta iraunkortasuna sustatzeko konpromisoa hartuko du, bere komunitatearentzat, inguruko sarearentzat eta bere ekimenak gauzatzen dituen jendartearentzat ongizatea bilatzeko ardura ere. (<https://olatukoop.eus/oinarri-irekiak/>)

¹² KoopFabrika: www.koopfabrika.eus

¹³ Lanki Ikertegia: <https://mukom.mondragon.edu/lanki/>

¹⁴ Gezki Institutua: <https://www.gezki.eus/>

3.2. Metodologia eta adierazle sistemaren eraikitze prozesua

Adierazle sistemaren eraikitze prozesuari dagokionez, jarraitu den prozesu metodologikoak helburu honekin eginiko beste ikerketek duten logika bera jarraitu du (Yakovleva eta Flinn, 2004; Fritz eta Matopoulus, 2008; Matopoulus eta Bourlakis, 2010; Defourny eta Nyssens, 2013; Lammerts van Bueren eta Blom, 1997). Prozesu horien egokitzapena burutu da, beti ere ESE ikuspegia eta helburuak izanik jomugan. Beraz, mailaz maila helburuak, irizpideak eta adierazleak sortzen joan dira. Nahiz eta kontzeptu horien (helburuak-irizpideak-adierazleak) definizio anitz topatu ahal dira, ikerketari egokitzuz horrela erabiliko dira:


- Helburua: lehenengo maila da eta ekimen sozial kooperatibo batek zein helburu dituen jasotzen ditu, ESE ikuspegitik. Horrela, helburua oinarritzko araua litzateke ESE printzipioen aldeko azterketa eta ekintza bideratzeko.
- Irizpidea: helburu horiek lortzeko zer landu/garatu behar den jasotzen du, hau da, helburuak betetzen direnean ekintzailatza sozial kooperatiboko proiektu batek sortzen dituen emaitzak dira. Horrela, irizpideek oinarritzko helburuak eramaten dituzte proiektu bakanetara; beraz, helburuak baino zehatzagoak dira, eta, ondorioz, adierazleekin lotzeko errazagoak.
- Adierazlea: irizpidearen betetze maila neurtzeko eta ebaluatzeko izaera anitzeko aldagaiak dira. Aukeratutako ekintzailatza sozial kooperatiboko proiektu batek ESE printzipioak azaltzen duten adierazle-multzo esanguratsuak izan behar dute.

Abiapuntutik oso presente izan da, ezarritako helburu, irizpide eta adierazle multzoak zenbait irizpide metodologiko asebeste behar litzuketela, besteak beste: integritasuna, baliagarritasuna, konparagarritasuna, neurgarritasuna, argitasuna eta fidagarritasuna (Bell eta Morse, 2008; Singh *et al.*, 2012; Begiristain, 2016).

Adierazle sistema honen eraikuntza prozesua bost urrats nagusitan garatu da. Une bakoitzean erabilitako metodologia fase bakoitzaren helburu eta beharrei egokitu da. Honela, zenbait unetan teknika nagusiak literaturaren berrikusketan eta ikertzaileen aurre-ezagutzan oinarritu badira ere, behaketa parte hartzailearen bitartez jasotakoekin ere (Flick, 2004), beste zenbait fasetan *sakoneko elkarrizketa* eta *focus group* tekniken bitartez bilatu izan da eragileen (*practitioners*) aldetik jaso beharreko balioztatze bidez. Aukeraketa metodologikoa egiteko literaturaren gomendioak jarraitu dira (Flick, 2004; Marshall eta Rossman, 2011). Guztiarekin, barne tekniken erabilpenarekin, triangulazio metodologikoa bermatu da (Denzin eta Lincoln, 2012) –literaturaren berrikusketa eta behaketa partehartzailea, sakoneko elkarrizketak eta focus groupak–.

Jarraitutako prozesu metodologikoa jasotzen da ondorengo irudian.

2. Irudia. ADIERAZLE-SISTEMA PROPOSAMENAREN ERAIKUNTZAN JARRAITUTAKO PROZESU METODOLOGIKOA



Iturria: Egileek egina.

3.3. Ekintzailatza sozial kooperatiborako adierazle sistema: Emaizen interpretazioa

ESeren paradigmatic eta KoopFabrikako ekintzailatza sozial kooperatiboa ulertzeko modutik abiatuta eta azaldutako prozesu metodologikoari jarraituz Ekintzailatza sozial kooperatiborako adierazle sistemaren behin betiko lehen proposamena jasotzen da 1. Taulan. Horretarako, adierazle sistemako helburu bakoitza definitua izan da, honi loturiko irizpideekin batera. Horrela osatzen dira landutako

bost helburuak: 1) Lanaren Burujabetza; 2) Ekimen kolektiboa; 3) Lurraldea eta eraldaketa soziala; 4) Bizitza Iraunkorra (Oreka Ekologikoa eta Bizitza Erdigunean); eta 5) Iraunkortasun Ekonomikoa.

1. Taula. **EKINTZAILLETZA SOZIAL KOOPERATIBORAKO ADIERAZLE SISTEMA**

Helburua	Irizpidea	Adierazlea
LANAREN BURUJABETZA	Lan kontzeptua	Lanaren zentzua Lan anitzen aitortza Lan kolektiboa
	Lan autoeratua	Atxikipen librea Bazkide kopurua Diru laguntza publikoak Kide langileen ekarpenak
	Parte hartze integrala, demokratikoa eta inklusiboa	Erabakitzea kudeaketan Egitura demokratiko eta inklusiboak Boluntarioria eta kidezko komunitarioa
EKIMEN KOLEKTIBOA	Gardentasuna	Informazio gune horizontalak eta irekiak Informazioa helarazteko prozedurak
	Banaketa justua	Emaitza ekonomikoen banaketa kideen artean Ekitatea soldatan
	Berdintasuna	Emakume eta gizonezkoen soldaten aldaera Gaitasunen garapenerako formakuntza eta akonpainamendua Emakumeen edo menderatze arriskuan dauden pertsonen garatzeko eta integratzeko aukera
LURRALDEA ETA ERALDAKETA SOZIALA	Izaera politikoa	Lurraldeko gobernantza maila desberdinetan hobekuntza prozesuak sustatuko dituzten ekintzak Intzidentzia politikoaren hedapena gizarte sareetan eta hedabideetan
	Interkooperazioa eta izaera banatua	Erosketak «merkatu sozialean»/ ESE mugimenduan edo tokiko hornitzaileei Salmentak merkatu sozialean / ESE mugimenduan ESEko eragileekin lankidetzak eta heste-soziala Interkooperazioaren dimentsio politikoa
	Sozializazioa eta herrikortasuna	ESEarekin sentsibilizazioa eta formazioa Ondare komunari ekarpena
	Tokiko kultura	Tokiko jakintza berreskuratzea eta sustatzea helburua duten ekimenak Euskaraz bizitzea
	Gizarte beharrak eta ekintzailletza	Ekintzailletza proiektuen dinamizazioa Gizarte bazterketan diren pertsonen laneratzea

.../...

BIZITZA IRAUNKORTASUNA	OREKA EKOLOGIKOA	Balio katean karbono aztarna	Hondakinen gutxitzea eta birziklatzea Energia berriztagarrien erabilpena (propioak edo kanpokoak) Alperrik galtzeko ondasunen gutxitzea edo berbalorizazioa Merkaturatze bide laburren erabilpena Merkaturatze bide laburren garrantzia Karbono isurketen murrizketa duen logistika edo banaketa sistema
		Jarrera ekologikoa	Biodibertsitatea eta baliabide naturalen mantentzea eta zaintzea ikuspegia duten praktiken erabilpena Ekologia gaietan barne eta kanpo ekintza eta sentsibilizazioaren sustapena
	BIZITZA ERDIGUNEAN	Parekidetasuna lanean eta erabakietan	Emakume kopurua Emakumeak botere postuetan Emakumeak lan ez ordainduetan
		Rol eta lan banaketa	Emakumeen parte-hartzea bileretan Rol eta lan banaketan berrikusketa Emakumeen parte-hartzea bozeramailetan
		Denboraren kudeaketa	Ordutegien zaintza eta malgutasuna Lan produktibo eta erreproduktiboaren banaketa
		Emozioen eta gatazken kudeaketa	Emozioen eta gatazken lanketa Langileen bizitzaren eremu ezberdinen arteko lotura
		Jarrera feminista, dekoloniala eta ez arrazista	Hizkuntza inklusiboa Zapalkuntza anitzen kontzientzia eta lanketa konprometitua
		Bizigarritasuna	Behar materialen asetzea: dirutan Behar materialen asetzea: ez dirutan Behar ez materialen asetzea
	IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA	Egonkortasun ekonomikoa	Proiektuaren biziraupena Aldagai ekonomikoen jarraipena Kostuak estaltzen dituen prezioa Plangintza operatiboa Plangintza estrategikoa
		Erresilientzia eta dibertsifikazioa	Produktu eta zerbitzuen dibertsifikazioa Proiektuaren erresilientzia Sarreraren jatorri dibertsifikatua Interkooperazioaren ekarpen ekonomikoa
		Finantza kudeaketa etikoa	Mailegu eta zerbitzu etikoen datuen oreka Gordailu etikoen datuen oreka
		Barne berrikuntza	Barne berrikuntzaren lanketa eta emaitzak
		Harreman ez merkantilizatuak	Ekonomia ez merkantilizatuaren sustapena Interes talde guztiekin bidezko harremana

Iturria: Egileek egina.

Horrela, Ekintzailatza sozial kooperatiboko adierazle sistemaren proposamen honen osotasunaren lehen argakia emate aldera, lehenik nabarmendu nahi genuke helburu gehienek enpresen barne antolakuntzako dimentsioei erreparatzen dietela nagusiki, nahiz eta hirugarren helburuak (Lurralde eta eraldaketa soziala) esplizitatzen duen erakunde horiek *ad extra* lurraldeko eraldaketa sozialeko prozesuetan izan beharreko jarrera. Lurraldearekiko konpromiso hori ESEko egitasmoei aitortzen zaien izaera politikotik eratortzen da, eta lurralde garapeneko esparru ezberdinetan eragitea du xede: dela hizkuntza praktiketan, dela tokiko kulturaren, dela gizarte beharrezanetan, edo dela ESEko bestelako erakundeekin indartu beharreko saretze eta interkooperazio dinamiketan.

Barne dimentsioen ezaugarritzea, berriz, helburu nagusi hauen gainean eraiki da: enpresa hauen jabego egiturak (eta beraz erabaki hartze prozesuak) lanaren burujabetzan oinarritzen diren egitura kolektiboen bitartez gauzatzen dira, eta horien iraunkortasun ekonomikoa ziurtatzeaz bat, esfortzu berezia egin nahi da bizitzaren iraunkortasunean positiboki eragiten duten praktiketan sakontzeko, alegia, erakunde horien oreka ekologikoa hobetuz eta bizitza erdigunera ekartzeko politiketan sakonduz.

Esan bezala, ESEko esperientziek zein KoopFabrikaren baitan sustatzen diren ekimenek lanaren burujabetza dute oinarri, hau da, enpresan lan egiten duten pertsonak dira baliabide produktiboen jabe eta erabaki hartzaile nagusiak. Helburu hau gorpuzten duten irizpide nagusiak autoeraketa maila eta pertsona guztien parte hartze integral mailan gorpuzten dira, eta era berean, lanaren kontzeptua bera ere birformulatzeko bide eman nahi da: lana bizitza proiektu gisa ulertzeaz batera, lan mota ezberdinei (produktibo zein erreproduktibo) aitortza egin nahi baitzaie. Oina-rrian, lanaren burujabetzaren kontzepzio Arizmendiarrietarra dago, Joxe Azurmendik teorizatua, halere, pertsona burujabeak proiektu kolektiboetan eta antolaketa demokratikoz erabakimenduna sustatzeaz gain lanaren zentzu berri bat emateko saiakera dago.

Lanaren kontzepzio burujabeari estuki lotzen zaio bigarren helburua ere (Ekimen Kolektiboa): izaera kolektiboa landu eta indartzearena, hain zuzen ere. Honela, ESE paradigmaren baitan diharduen jarduera ekonomiko bat «norbere kontura diharduen» negozio batetik bereizten duena horixe bera litzateke: talde izaera. Talde izaera hori lantzeko hiru irizpide nagusi ezarri dira: informazio gardentasuna, errenta eta emaitzen banaketa justua eta berdintasun praktikak bideratzea zapalkuntza ardatz ezberdinetan.

Lurraldeko eraldaketa prozesuetan txertaturiko enpresa kolektibo eta burujabe horiek, azkenik, bi dimentsio ekonomiko maila berean jarri eta aldi berean bete edo uztartzea dute xede: iraunkortasun ekonomikoa eta bizitzaren iraunkortasuna, hain zuzen ere.

Iraunkortasun ekonomikoak ohiko parametro estandarizatuak erantzuteaz ba-tera (kostuen kontrola, plangintza estrategiko eta operatiboen lanketa, produktu eta zerbitzuen dibertsifikazioa, etab.). ESEri loturiko bestelako praktika ekonomiko ba-tzuk ere

barneratzen ditu, hala nola: finantza etikoen erabilera, harreman ez merkantilizatuen sustapena, edo interkooperazio praktiken ondorio ekonomikoak neurtzea.

Enpresa munduan erabiliagoak diren parametro ekonomiko horiei bigarren adierazle multzo handi bat erantsi nahi zaie: bizitzaren iraunkortasunean laguntzen duten parametro ekonomikoena, hain zuzen ere. Bizitzaren iraunkortasuna bere adiera bikoitzetik jorratzen da: oreka ekologikoaren ikuspegitik eta zaintzen ekonomiaren ikuspegitik. Lehen honen neurketa enpresak bere balio katean uzten duen karbono aztarnaren analisisan oinarritzen da, eta energia eta materialen erabilpen eta trataera (berrerabilpena, hondakinen kudeaketa, etab.) aztertzeaz gain, merkaturatze bide laburren aldagaia kontrolatzea du xede.

Zaintzaren ekonomiaren ikuspegitik aldiz, erakundearen egunerokoan agertzen diren praktika patriarkalen ardatzak aztertu eta alderantzikatu nahi dira, ikuspegi integral batetik: erabakiguneen parekidetasun maila, rol eta lanen banaketa, denboraren kudeaketa, emozio eta gatazken kudeaketa, jarrera feminista eta bizigarritasunari loturiko adierazleak landuz.

Esan bezala, helburu horiek lortzeko zein aspektu landu edo garatu daitezkeen kontsideratuz proposatzen da oraintxe xehatu den irizpide zerrenda hori, eta irizpide hauei lotzen zaizkie, horiek neurgarri egiteko helburuz, adierazle konkretuak. Adierazleak finkatzerako orduan, bi ariketa burutu dira: alde batetik adierazle bakoitzaren neurgarritasuna eta argitasuna fintzeko, adierazle bakoitza zein galderaren bitartez neur litekeen zehaztu da. Azkenik, galdera horri erantzuteko neurgailua edo neurketa unitatea ere proposatu da adierazle bakoitzarentzat.

Komeni da azken ohartarazpen batzuk egitea adierazleen neurgarritasunaren inguruan. Izan ere, adierazleei loturiko galdera batzuk modu kuantitatiboan erantzun litezke, bestetarik ordea modu kualitatiboan, adierazle sistemaren izaera sistemiko eta anitzaren ondorioz. Beraz, adierazleak ez dira unitate berdinetan ez neurtu ez adierazten. Hau, neurgaitzgarritasunaren kontzeptuarekin lotu daiteke (Munda, 2005), bai teknikoa bai soziala. Nolanahi ere, datuak aztertzeko eta konparatzeko moduan jartzeko helburuz, adierazleen balioak erantzun ordinal baten eskalara bihurtzea aurreikusten da bere fase praktikorako (Singh *et al.*, 2012; Yakovleva, 2007), Likert eskalari baliatuz 0-5 tarteko balioak honako hau adierazten dutelarik: adierazlearen inguruko daturik edo informaziorik ez dugu (0), ekarpen oso baxua (1), baxua (2), ertaina (3), altua (4) edo oso altua-bikaina (5) egiten dela. Beraz, azterketan adierazle bakoitzean balio bakoitzerako beharrezkoa da ebaluazioaren esanahia adierazten da. Horrela, eskala horretan eta adierazle bakoitzerako ekintzaitza kooperatiboko esperientzia bakoitzaren emaitzak grafiko erradialean jasoko lirateke bere erabilpen praktikorako, nahiz eta azterketa honetan erabilpen praktikoa hau ez den gauzatu.

4. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Eztabaida ezberdinak antolatu eta ordenatzeko asmoz, adierazle sistema honen inplikazio teoriko eta praktikoetan jarriko da arreta, bereziki erreparatu nahi zaio tresna honek ekonomia sozial eraldatzailearen paradigmatari egindako ekarpenari.

Adierazle sistema hau, arestian jorraturiko hurbilketa teorikoan agertu diren zenbait hutsune eta erronkari heltzeko bokaziotik sortu da. Gizarte ekintzailtzen teoretan Young-ek irekitako «jokabideen teorian» beste aletxo bat ezartzen du, jadanik eginiko aurkikuntza batzuk berrestera mugatuz: ekintzailtzen izaera kolektiboa azpimarratuz, horietan kausi daitezkeen logika pluralak (merkatuzkoak eta ez merkatuzkoak) barnebilduz, eta saretze eta interkooperazio mekanismoen garrantzia berretsiz, besteak beste.

Gizarte ekintzailtzen inguruko korpus teorikoaz gain, proposatzen den tresnak ekonomia sozialaren inguruko eztabaida teorikoan eragin nahi luke. Ekonomia sozialeko erakundeen elementu bereizgarria horien konpromiso sozialaren derrigorrezkotasunean oinarritzen denez, erronka garrantzitsua sortzen da helburu sozial horien zehaztapen, definizio eta operatibizazioari dagokionean. Arestian ikusi denez, ekonomia solidarioak proposatzen duen berrikuspenetik bi dira ekonomia sozialari egozten zaizkion herrenak: erakundeon praktika errealak bere erretorikarekin lerrotzeko estrategia eta tresna konkretuen gabezia, batetik; eta horien engaiamendu politikoaren ahultzea, bai barne dimentsioari dagokionean (demokrazia erreal falta) bai eta gizarteari eginiko ekarpenean ere (gizarte eraldaketarako eredu argi baten falta).

Proposatzen den adierazle sistemak, aurreko atalean garatu den edukietan oinarri hartuz, bi eztabaida teoriko horietan egin nahi luke bere ekarpena.

Alde batetik, helburu sozialak hobeto zehaztu, eta horiei loturiko neurgailuen bidez, helburu horien lorpen mailan hobekuntzak egiteko bide eman nahi du. Prozesu eraldatzaileak sustatzen lagundu nahi luke, emaitzak bilatu asmo diren helburuetara gerturatzeko joan daitezkeen.

Beste aldetik, ekonomia sozialaren dimentsio politikoa indartzeko ere baliagarri izan nahi luke, honen funtzio eraldatzaileari arlo, eduki eta zeregin konkrituagoak ezartzen baitizkio, halako moduz ze, ekonomia sozialeko erakundeetatik bultzatu nahi den gizarte eraldaketa eredu itxuratzen lagundu baitezake. Horretantxe suma liteke ekonomia sozial eraldatzailearen indargunea bera: ekonomia sozialak eragile berezitu gisa proposatzen duen gizarte eraldaketa ereduaren konkrezio handiagoan, hain zuzen ere. Lanaren burujabetza, bizitzaren iraunkortasuna, izaera kolektiboa eta lurralderatua... ezaugarri horiek guztiak, egungo bestelako zenbait korrante kritikorekin sintonian egoteaz bat, baliagarriak suerta litezke jendarte guztiarentzat bilatu asmo den gizarte eraldaketaren egitasmoa ezaugarritzeko, edukiz osatzeko, azaltzeko eta mamitzeko.

Bistakoa da proposamen hau ez dela hutsaren gainean sortua izan. Esperientzia ezberdinen arteko osagarritasuna dago guzti honen azpian. Alde batetik, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ibilbide kooperatiboaren oinarriak eta argi ilunak,

bestetik, Olatukoop Sarearen sei urteko ibilbidea, eta azkenik KoopFabrikako hiru edizioetako gorpuzkera praktiko-teorikoa.

Adierazle sistemako ezaugarri eta elementu askok lotura zuzena dute esperientzia kooperatiboa elikatu izan duten printzipioekin, lanaren burujabetza, antolaketa demokratikoa izaera kolektiboa edo gizarte eraldaketa, nagusienak aipatzearen; bestetzuk, ordea, asko zor diote berriagoak diren ekonomia solidariotik zein ekonomia feministatik eginiko hainbat saiorei, enpresen kudeaketa mailan kezka ekologiko zein feministak txertatzeko egindako ahaleginari, edo finantza etikoen erabilerari, zenbait aipatzearen.

Adierazle sistema honen bokazioa izan da KoopFabrikaren praktikan egiten dena jasotzea, ordenatzea eta elementu neurgailuetan zedarritzea. Bokazio horretan, tradizio kooperatibo luzeagoko elementu eraldatzaileak berreskuratzeko inportantzia dago, gaurkotatzea dutelako eta sakonean pertsona eta komunitatea daudelako. Dena den, eta horiek ekonomia solidarioaren proposamen ekonomiko alternatiboekin eta ingurumenaren zaintza zein ekonomia feministak proposatzen dituen elementu berri eta gaurkotuekin uztartzeko edo osagarritzeko ahalegina egiten da.

Gogoetan beste koska bat igoz, adierazle sistema honek mahai gainean jartzen ditu ezagutza zientifikoaren sorkuntzari loturiko beste zenbait eztabaida epistemologiko ere. Nagusiki ekonomia sozial eraldatzailearen ekarpen teorikoa, praktika errealitatik eraikitzen doanaren konstatazioa jartzen du agerian. Nekez uler litezke adierazle sistemako elementu ezberdinak Koopfabrikako programaren baitan bizitako prozesu eta eztabaidetatik aparte. Ekonomia sozial eraldatzailearen paradigma bera, etengabeko eraikuntza den proposamena da, praktika sozialetik eraikia, eta adierazle sistema hau bezalako ekarpen metodologikoen bitartez indartua eta sostengatua.

Lan honen inplikazio praktikoei dagokienean berriz, eta horiek azken gogoeta honekin kateatuz, adierazle sistemak bi zentzutako inplikazioak dituela esango genuke: teoria eraikitzen lagun dezakeen moduan lagundu nahi baitu gizarte eraldaketarako paradigma bat erakunde mailan gorpuzten, kudeaketa mailara jaisten, operatibizatzen. Horixe da eragin nahi lukeen inplikazio praktiko behinena. Erabilgarri izatea, kudeaketa mailan. Bigarrenik, ekintzaitza kooperatiboko erakunde zein proiektu kolektiboek barrura begirako elementuetan hobekuntzak egiteko eta sortze bidean diren ekimen ekonomikoetan adierazle sorta osoa presente izanik erabakiak eta nora-bide bat hartzen laguntzea; barne zein dimentsio sozial eraldatzaileagori dagokionean.

Erabilgarritasun praktiko horiek luzera, seguruenez, elementuak edo arloak gehitzea ekarri beharko luke. Esperientzia ezberdinen metaketatik adierazle sistema bera ere moldatu beharko da, funtzionalitate berriak bilatuz eta bertsio praktikoa sortuz. Marko moduan ulertuta, arlo batean zein bestean, sakontzeko argia emateko ere baliagarri izan daiteke zenbait kasutan. Zentzu horretan, gorago aipatutako memoria kooperatibo alternatiboaren errelatoaren ebidentzia jasotzeko eta errealitatea eraikitzeko bitarteko baliagarria izan daiteke, beste ekonomia baten –sistema kapi-

talista gairitu eta ordezkatu dituen helburuak dituen— eraikuntza integraltasuna, sendotasuna eta zehaztasuna eta bideragarritasuna emango duten proposamenak behar direlako. Beraz, oraindik bitartekoa eta etengabeko eraikuntza jarraitu dezakeen tresna praktikoa zein teorikoa da.

Dena den, aurkezten den adierazle sistema honek ere baditu, bere mugak. Lehen proposamen bat baino ez dela, honen balioztatze praktikoa gauzatzeko dago. Adierazle sistema hau ekintzaile kooperatiboko esperientzietan edo erakunde erakunde aplikatu beharko litzateke eta balioztatze horrek berebiziko garrantzia dauka proposaturiko adierazle zerrendaren behin betiko bertsioa finkatzeko. Balioztatze horretan zorrozuta geratuko litzateke adierazle neurgarritasun, fidagarritasun, argitasun edo konparagarritasuna. Zentzu horretan, maila teorikoan landutako fase honetako bigarren foku taldean identifikatuak geratu dira zein adierazlek sor zitzaketen arazo gehien. Behar beharrezkoa da hortaz, azken balioztatze hori burutzeko adierazle bakoitzari dagokion fitxa espezifiko burutzea, non jasoko baitira, behin betiko, besteak beste: adierazlearen definizio zehatza, dagokion irizpidea, ebaluazio modua eta emaitzen interpretaziorako neurketa unitatea¹⁵.

Horrez gain, eta lehen proposamen honekin eginiko bideari esker, foku taldeetan nabarmendu zen proposaturiko adierazle sistema orokorretik bestelako bertsio sinplifikatu edo laburragoak egiteko aukera ere baliagarria litzatekela, tresna honi eman dakioken funtzionalitate ezberdinetara egokituz.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ANDERSSON, F. (2013): «Studying Nonprofit Entrepreneurship from a Behavioral Perspective» en Young, D. R.(ed.), *If Not for Profit, for What?*, Georgia State University, 21-25, Atlanta.
- AUTONOMIA SUR (2017): *Soberanías y prácticas socioeconómicas para la transformación*. Documento 14. Autonomía Sur, Sevilla.
- BACQ, S.; JANSEN, F. (2011): «The multiple faces of social entrepreneurship. A review of definitional issues based on geographical and thematic criteria», *Entrepreneurship and Regional Development*, 23(5-6): 373-403.
- BASSI, A.; VINCENTI, G. (2015): «Toward a new metrics for the evaluation of the social added value of social enterprises», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 83: 9-42.
- BEGIRISTAIN, M.; LANDETA, J.; MEDIANO, L. (2016): «Nekazaritzako elikagai ekologikoen banaketa politika iraunkorra: adierazle sistema agroekologikoen proposamen praktikoa», *Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria*, 23: 13-35.
- BOUCHARD, M. (coord.) (2010): *The Worth of the Social Economy: An International Perspective*, Peter Lang Publishing, Berna.
- CORAGGIO, J.L. (2016): «La economía social y solidaria (ESS): niveles y alcances de acción de sus actores. El papel de las universidades», en Puig, C. (ed.), *Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas*, Hegoa, Bilbao.
- CHAVES, R.; MONZÓN, J.L. (2018): «La economía social ante los paradigmas económicos emergentes: innovación social, economía

¹⁵ Ikus, zentzu honetan Begiristainek (2018) eginiko ariketa elikagai ekologikoen banaketa politikarako eginiko adierazle sistema agroekologikoen proposamenean.

colaborativa, economía circular, responsabilidad social empresarial, economía del bien común, empresa social y economía solidaria», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 93: 5-50.

- DE BRUIN, A.; SHAW, E.; LEWIS, K.V. (2017): «Traversing the Terrain of Context in Social Entrepreneurship», *Entrepreneurship and Regional Development*, 29 (7-8): 575-585.
- DEES, J.G.; ANDERSON, B. (2006): «Framing a theory of entrepreneurship: Building on two schools of practice and thought». ARNOVA Occasional Paper Series: Research on Social Entrepreneurship: Understanding and Contributing to an Emerging Field, 1(3): 39-66.
- DEES, G. (2013): «Social Entrepreneurship and the Legacy of *If Not for Profit, for What?*» en Young, D. R.(ed.), *If Not for Profit, for What?*, Georgia State University, 25-29, Atlanta.
- DEFOURNY J.; NYSENS M. (2010): «Conceptions of Social Enterprise and Social Entrepreneurship in Europe and the United States: Convergences and Differences». *Journal of Social Entrepreneurship*, 1(1): 32-53.
- DÍAZ, M., MARCUELLO, C.; MARCUELLO, C.H. (2012): «Empresas sociales y evaluación del impacto social», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 75: 179-198.
- ETXEZARRETA, E.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C.; MORANDEIRA, J. (2014): «Sobre el concepto de Economía Social y su proceso de consolidación», en Bretos, I.; Perez de Uralde, J.M. (eds.), *Economía Social Vasca y Crisis Económica. Análisis de su evolución socioeconómica entre 2009 y 2013*, OVES/GEEB. 11-17. Donostia-San Sebastián.
- ETXEZARRETA, E.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2018): «Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak», *Hegoak zabalduz*, 7: 1-26.
- FALS-BORDA, O.; RODRÍGUEZ-BRANDAO, C. (1987): *Investigación Participativa*, Ediciones de la Banda Oriental, Montevideo.
- FALS-BORDA, O.; RAHMAN, M.A. (eds.) (1991): *Acción y conocimiento: Como romper el monopolio con investigación-acción participativa*, CI-NEP, Santafe de Bogotá.
- FERNANDEZ, E. (2019): *El comunitarismo y el cooperativismo. La intercooperación como herramienta concetora hacia una Bizitza Bizigarria*, Master Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- FRUMKIN, P. (2013): «Dennis Young and Supply Side Theory» en Young, D. R.(ed.), *If Not for Profit, for What?*, Georgia State University, 31-38, Atlanta.
- HANSMANN, H. (1980): «The role of nonprofit Enterprise», *Yale Law Journal*, 89: 835-901.
- JARA, O. (2012): «Sistematización de experiencias, investigación y evaluación: aproximaciones desde tres ángulos», *Revista internacional sobre investigación en educación global y para el desarrollo*, 1:56-70.
- (2018): *La sistematización de experiencias: prácticas y teoría para otros mundos posibles*, CINDE, Bogotá.
- LAMMERTS VAN BUEREN, E.; BLOM, E.M. (1997): *Hierarchical Framework for the formulation of sustainable forest management standards. Principles criteria indicators*, The Tropenbos Foundation arg., Wageningen, NL
- LAVILLE, J.L. (2015): *Asociarse para el bien común. Tercer sector economía social y economía solidaria*, Icaria, Barcelona.
- LEVESQUE, B. (2003): «De la Economía Social a la Economía Solidaria y Plural», *CRISES Etudes théoriques*, Quebec.
- MARCUELLO, C. (2015): «Impacto económico y social de la economía social. Presentación del número», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 83: 5-8.
- MATOPOULOS, A.; BOURLAKIS, M. (2010): «Trends in food supply chain management», en Mena, C.; Stevens, G. (eds.), *Delivering performance in food supply chains*, Woodhead Publishing Series in Food Science, Technology and Nutrition, Cambridge.
- MONZÓN, J.L. (2016): «La economía social en la literatura económica y en los hechos. 30 años del CIRIEC-España», *Revista Ciriec-Economía*, 88: 287-307.
- MONZÓN J.L.; CHAVEZ, R. (2016): *Evolución reciente de la economía social en la Unión Europea*. CES/CSS/12/2016/23406. CESE (Comité Económico y Social Europeo)
- MUNDA, G. (2005): «Measuring sustainability: a multi-criterion framework», *Environment, Development and Sustainability*, 7(1): 117-134.
- NAVEDA, A. (2016): «Auditoría social: más allá de la cuenta de resultados», *Pueblos Revista de información y debate*, 71: 36-38.
- PAOLILLO, J. (2018): *Construyendo una Economía social transformadora: la experiencia de Koo-*

- pfabrika*, Master Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C.; ETXEZARRETA, E. (2015): «Ekonomia sozial eta solidarioa: zer da eta nola ulertzen da?», *Gizarte Ekonomia Euskal Aldizkaria*, GEZKI, X urteurrena: 13-34.
- (2015): «Sobre el concepto de Economía Social y Solidaria: aproximaciones desde Europa y América Latina», *Revista de Economía Mundial*, 40:123-144.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C.; ETXEZARRETA, E.; GURIDI, L. (2009): «Ekonomia Soziala, Enpresa Soziala eta Ekonomia Solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera». *Ekonomia Solidarioaren Paperak*, 1: 1-41.
- RAHMAN, M.A. (1991): «El punto de vista teórico de la IAP» en FALS-BORDA, O.; RAHMAN, M.A. (eds.), *Acción y conocimiento: Como romper el monopolio con investigación-acción participativa*, CINEP. 21-35. Santafe de Bogota.
- RETOLAZA, J.L.; SAN-JOSÉ, L.; RUIZ-ROQUEÑI, M. (2016): *Social Accounting for Sustainability: monetizing the social value*, Springer, Heilderberg.
- SALAMON, L.M. (1987): «Of Market Failure, Voluntary Failure, and Third Party of Government Relations in the Modern Welfare State», *Journal of Voluntary Action Research*, 16 (2):29-49.
- SCHOCKLEY, G. (2011): «Schumpeter, Kirzner, and the Field of Social Entrepreneurship», *Journal of Social Entrepreneurship*, 2(1): 6-26.
- SINGH, R.K.; MURTY, H.R.; GUPTA, S.K.; DIKSHIT, A.K. (2012): «An overview of sustainability assessment methodologies» *Ecological Indicators*, 15(1): 281-299.
- SPEAR, R. (2006): «Social entrepreneurship: A different model?», *International Journal of Social Economics*, 33(5/6): 328-338.
- STEINBERG, R. (2006): «Economic Theories of Nonprofit Organizations» en Powell, W.W.; Steinberg, R. (ed.), *The Non-Profit Sector: a Research Handbook*, Yale University, 221-243, New Haven.
- (2013): «*If Not for Profit for What?* and the Frontiers of Nonprofit Sector Research en Young, D. R.(ed.), *If Not for Profit, for What?*, Georgia State University, 41-51, Atlanta.
- STIEVENART, E.; PACHE, A.C. (2014): «Evaluer l'impact social d'une entreprise sociale: points de repère», *RECMA, Revue Internationale de l'économie sociale*, 331: 76-92.
- STRECK, D.R.; JARA, O. (2015): «Research, Participation and Social Transformation: Grounding Systematization of Experiences in Latin American Perspectives», en BRADBURY, H. (ed.), *The SAGE Handbook of Action Research*, SAGE, 472-480, Dorset.
- VILLALBA, U.; EGIA, A.; PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2019): «Sistemas Locales de Economía Social y Solidaria (SLESS)», *UNTFSSeren Nazioarteko Konferentzia*, Ginebra.
- WANDERLEY, F. (ed). (2016): *La economía solidaria en la economía plural: Discursos, prácticas y resultados en Bolivia*, Hegoa, Bilbao.
- WEISBROD, B.A. (1975): «Toward a theory of the voluntary, non-profit sector in a three-sector economy» en Phelps, E. (ed.), *Altruism, morality and economic theory*, Russell Sage, 171-195, New York.
- YAKOVLEVA, N.; FLYNN, A. (2004): «Innovation and sustainability in the food system: A case of chicken production and consumption in the UK», *Journal of Environmental Policy & Planning*, 6(3-4):227-250.
- YAKOVLEVA, N. (2007): «Measuring the sustainability of the food supply chain: a case study of the UK», *Journal of Environmental Policy & Planning*, 9(1): 75-100.
- YOUNG, D.R. (1983): *If not for profit, for what? A behavioral theory of the nonprofit sector based on entrepreneurship*, Lexington Books, Lexington.
- (2013): *If Not for Profit, for What?*. Georgia State University, Atlanta.